



<b>Ekipoa</b>	<b>Ionizazioa (plasmarekin tratatzea)</b>
<b>Kodea</b>	B-2018
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	Usainak eta KOLak ezabatzea, % 60–90 inguruko efizientziarekin (usainen neurketan soilik oinarritutako neurrien arabera).
<b>Honetan datza:</b>	<p>Ionizazio-tratamendua («plasmarekin tratatzea» ere esaten zaio) errekuntza-gasak tratatzeko erabiltzen da, gas horiei usaina darienean eta bero-eduki txikia dutenean; adibidez, KOL kontzentrazio txikiko gasak tratatzeko.</p> <p>Gas-emisioak ionizazioaren bidez tratatzeko energia gutxiago kontsumitzen da errekuntza osteko ganberako tratamenduan baino. Halaber, tratamendu biologikoekin alderatuta, hondar-gasaren konposizioan izaten diren gorabeherak gutxiago eragiten diote Gainera, ionizazio-instalazioak erraz erabiltzen dira, eta behar direnean pizteko eta itzaltzeko modukoak dira.</p> <p>Errekuntza-gasa erreazio-ganbera batetik pasatzen da, eta txandakatuz doan eremu elektriko indartsu baten eraginpean jartzen da (20-30 kV). Deskarga elektrikoek eragindako erreazioen ondorioz, «plasma ez-termiko» esaten zaion egoera batera iristen da gasa. Egoera horretan energia handiko elektroiak, ioiak eta erradikal askeak daude, aldi berean, eta oinarriko gasaren tenperatura ez da ia aldatzen. Gasaren tenperatura giro-tenperaturaren antzekoa izaten jarraitzen du.</p> <p>Plasma ez-termikoaren erreaktibotasun handiko osagaiek kutsatzaileen deskonposizio eta oxidazio partziala eragiten dute. Prozesu horretan, N, O eta OH erradikalak dira aktiboak.</p> <p>Batzuetan, hondar-gasaren korrontean dauden kutsatzaileen arabera, ionizazio bidezko tratamendua osatzeko garbitzaile alkalino bat behar da. Garbitzaile horrek eragozten du atmosferara igortzea euri azidoaren sorrera eragin dezaketen kutsatzaileak.</p> <p>Aurretiazko baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Fluxua: 20-200.000 m<sup>3</sup>/h.</li> <li>- Tenperatura: 20-80 °C.</li> <li>- KOLen kontzentrazioak: &lt; 5000 mgr/m<sup>3</sup>.</li> <li>- Hezetasun erlatibo txikia (kondentsazioa saihestu).</li> </ul>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen</b>	Kanpoan geratzen dira indarrean dagoen legedian ezarritako mugak betetzeko teknologia hori aplikatuko duten jarduerak, bai eta dagozkien baimenetan, baldintza gisa, teknologia hori ezartzea eskatu zaienak



Hainbat sektoretan aplikatu daiteke, adibidez:

- Nekazaritza (NACE 01).
- Elikagaien industria (NACE 10).
- Industria kimikoa (NACE 20).
- Konpostaren fabrikazioa (NACE 38).
- Hondakin-urak tratatzeko instalazioak hainbat sektoretan (NACE 37).